# Denbora-

## 2 Puzzlea

Josebaren anaia txikia oso bihurria da. Pentsa, argazkia atera diote eta hamaika zatitan txikitu du.







## 3 Labirintoa

Dadoak ontzian sartzeko, zein da egin beharreko bidea? Ea topatzen duzun!



Erantzunak: 1.- Erregearen koroa. 2.- a-6, b-4, c-9, d-5, e-3, f-7, g-2, h-8, i-1. 4.- Paris eta Eiffel dorrea, Erroma eta Koliseoa, Londres eta Big Ben, Granada eta Alhambra. 5.- a) Suitza, b) Kolonbia, c) Argentina, d) Israel.

## Espaziontzia

Ilargira eta Martera joatea gustatuko al litzaizuke? Zuk egindako espaziontziarekin eta irudimen pixka batekin, agian, lortuko duzu.



**Beharrezko materiala**

- Komuneko paperak dakartzan kartoi horietako bi.
- Harri kartoia.
- Egunkari papera.
- Kola.
- Mastika.
- Margo gorria, zuria, beltza eta laranja.
- Pintzelak.
- Zotz biribildua.
- Guraizeak.

## Egiteko modua



1 Komuneko paperak dakarren kartoi baten gainean egunkari paperekin egindako bolatxo bat ezarri. Harri kartoi zatiak koletan sartu, eta, ondoren, egunkari paperekin egindako bolak estali harri kartoiz. Modu horretan, espaziontziaren gorputza eta punta lortuko ditugu.



2 Komuneko paperaren beste kartoi bat hartu, eta hiru zatitan banatu. Zati horiekin espaziontziaren hankak egingo ditugu.

# -pasa






## 4 Sagu Jakintsua

Kaixo, lagun! Aste honetako ariketa monumentu ezagun hauek non dauden asmatzea da. Lotu monumentu bakoitza dagokion hiriarekin.

## 5 Estatuak eta banderak

Jakingo duzu, noski, estatu bakoitzak bere bandera duela. Eta batzuk ezagutuko dituzu, gainera; baina bandera hauek nongoak diren ba al dakizu?

(a)



(b)



(c)



(d)





**3** Espaziontziaren hankak gorputzari itsatsi. Horretarako, koletan sartutako harri kartoiak eta kola erabiliko ditugu.



**4** Itsatsitako pieza guztiak lehortzen direnean, zotz biribildua beltzez margotu, eta espaziontziaren gorputzaren puntan sartu behar dugu. Jarraian, espaziontziaren gorputza eta hankak mastikarekin estaliko ditugu. Ondoren, zuriz margotu.



**5** Amaitzeko, espaziontzia nahi bezala apainduko dugu. Lauki zuriak eta gorriak egin ditzakezu, esaterako. Punta, berriz, beltzez margotu dugu, eta espaziontziaren hankak laranja kolorez. Hala, suaren itxura emango diogu.